



TOLOSAKO  
UDALA

2020IPLE0011

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

dcbc4e4648704a74e12ccd06a4184fc9499176e7bce08c2817b065ca6016ee4b

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2020KO ABENDUAREN 18AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**2020.12.18**

Tolosako Udaletxean, 2020ko abenduaren hemezortzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EBILDU)  
Kristina Pelaez Errazkin (EBILDU)  
Aitana Amondarain Esquisabel (EBILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EBILDU)  
Olatz Artola Apezteguia (EBILDU)  
Ander Figuerido Zubiria (EBILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EBILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EBILDU)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Jarduneko kontuhartzailea:**

Paulino Alonso Eraso

ESKU4fd75e78-fc27-4e63-a991-f3ff77395f08



### Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:  
2020ko azaroaren 26ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Onartzea Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua rautuko duen esleipenaren kontratazio espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.
3. Hasierako onarpena ematea 2021. urteko Udaleko lanpostu zerrendari.
4. Onartzea 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
5. Onartzea 2020ko dirulaguntzen eranskina aldatzea. 4-2020.
6. Onartzea aurrekontu-kreditu batzuk berriro erabilgarri aitortzea.
7. 2021eko Aurrekontu Orokorraren hasierako onarpena.
8. Kreditu aldaketa honen berri eman:  
15/2020 kreditu aldaketarako espedienteari dagokiona, kreditu transferentzien modalitatekoa.
9. Berri ematea: Tolosako Udal biztanleen erroldaren berrikuspenetik emandako biztanleen kopuru ofiziala, 2020ko urtarilaren 1ean.
10. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:  
2020ko azaroaren 2tik 30era (2020/1751-2020/1960).
- 11.EHBILDU taldearen eskaera, Udalak bere atxikimendua adieraz diezaion SAREren idatziari.
- 12.EHBILDU taldeak aurkeztutako mozioa: Eusko Jaurlaritzari Udalentzako ez ohiko funtsa berezi gehigarriaren eskaria.
- 13.EHBILDU taldeak aurkeztutako mozioa: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzea.
- 14.Galderak eta eskaerak.

Udal Idazkariak adierazi du Osoko Bilkura era erdi presentzialean egingo dela, honako modu honetan:

- Alkateak, udal talde politikoetako bozeramaileak (Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, eta Jose M. Villanueva Telleria), eta Udaleko Idazkariak eta Kontuhartzaileak, pleno aretoan daude
- Gainontzeko korporazioko kideek, zoom bidez, era telematikoa hartuko dute parte.

Udalbatza plenoa osatzeko lege-oinarria honako hau da: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean xedaturikoa: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones*



*excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

*A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».*

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, udal idazkariak honako eginbide hauek egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Fisikoki ez dagoen batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpenen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Eta bukatzeko, batzarkideek, aho batez, berretsi dute Osoko Bilkura era erdi presentzialean egitea.

Ondoren, batzarkideak bilkurako gai-zerrenda aztertzen hasi dira.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

**1. ONDORENGO AKTA ONARTZEA:**

**2020KO AZAROAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.



## **BATZORDE INFORMATIBOEN IRIZPENAK**

### **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDAL ERAIKINAK ETA HIRI-ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**Antolakuntza Batzordearen 2020ko abenduaren 11ko irizpena.**

#### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

|                       |                                                                          |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------|
| Kontratuaren xedea:   | Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua |
| Unitate sustatzailea: | Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaila                                        |
| Espedientea:          | 2020SABI00010                                                            |

#### **II.- AURREKARIAK**

**Lehena.-** Tolosako Udaleko Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko teknikariak 2020ko urriaren 28an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak.

**Bigarrena.-** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko9/2017 Legeak (SPKL hemendik aurrera) V. kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia, limiteak eta prezioa kalkulatzeko era, eta, kontratistaren erantzukizuna.

**Hirugarrena.-** Txosten berean, kontratuaren xehetasunak jaso dira, besteak beste: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

**Laugarrena.-** Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitu dira. Aipatutako legeak honako hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak*



*egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, baita kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

### **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Asmatu enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hurrengo hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak honako objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obrak edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna, zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematen behartzen duen kontratua. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

#### **Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:**

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 2.652.801,14 eurokoa da**, aintzat hartuta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.



|                                                      |                       |
|------------------------------------------------------|-----------------------|
| Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)                  | 875.607,59 €          |
| Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa %20 (BEZik gabe) | 410.000,00 €          |
| Luzapenak (BEZik gabe)                               | 1.367.193,55 €        |
| <b>BALIO ZENBATETZIA, GUZTIRA</b>                    | <b>2.652.801,14 €</b> |

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioen exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen (SPKL) azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, Zerbitzu-kontratuak araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000,00 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau armonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzaileraren profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtso berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerari eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. titularen IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe, 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. **Interesak***



sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

#### IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espedienteak hiru eratakoak izan daitezke: arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “*Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espedienteak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espedienteak, behar bezala arrazoitua*”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “*Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...*”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espediente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espediente hau **izapidetze aurreratuz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

#### V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

**Epea:** Bi urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, urtez urte, beste hiru urteko luzapena aurreikusten da.

**Balio zenbatetsia:** SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **2.652.801,14** eurokoa da.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)

875.607,59 €



|                                                      |                       |
|------------------------------------------------------|-----------------------|
| Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa %20 (BEZik gabe) | 410.000,00 €          |
| Luzapenak (BEZik gabe)                               | 1.367.193,55 €        |
| <b>BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA</b>                    | <b>2.652.801,14 €</b> |

| PRESUPUESTO<br>BASE LICITACIÓN |               |                |                |                |                | modificaciones<br>previstas | VALOR<br>ESTIMADO |
|--------------------------------|---------------|----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------------------|-------------------|
| 1 años sin IVA                 | 1 año con IVA | 2 años sin IVA | 2 años con IVA | 5 años sin IVA | 5 años con IVA | 410.000,00                  | 2.652.801,14      |
| 434.281,37 €                   | 525.480,46 €  | 875.607,59     | 1.059.485,19   | 2.242.801,14   | 2.713.789,38   |                             |                   |

Pleguarekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomiko guztiak lortu dira. Azterketa ekonomiko hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.059.485,19 euro**; horietatik, 875.607,59 euro printzipalari dagozkio, eta 183.877,59 euro, BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, eragindako programen udal-aurrekontuaren **227.01 "garbiketa" azpikontzeptuko** udal aurrekontu-partiden kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura.

Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Udal-eraikin guztietan eta hiri-altzarietan egindako lanak argi eta garbi bereizteko, lizitazio honen dokumentaziotik bereizi ezin den azterlan ekonomikoa egindako banakapenean xedatutakoaren arabera, eta dagozkion gastuak egotzi ahal izateko, esleipendunak hileroko faktura bat aurkeztuko du 1etik 25era zenbakitutako eraikin/altzari bakoitzeko. Bertan, mantentze-lanei, kristalei eta jaiegunei (halakorik balego) dagokien gastua banakatuko da.

|                | meses     | valor estimado      | cuota a pagar<br>(IVA incluido) |
|----------------|-----------|---------------------|---------------------------------|
| 2021           | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2022           | 12        | 448.560,23          | 542.757,88                      |
| 2023           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
|                | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2024           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
|                | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2025           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
|                | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2026           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
| modificaciones |           | 410.000,00          |                                 |
| <b>TOTAL</b>   | <b>60</b> | <b>2.652.801,14</b> | <b>2.713.789,38</b>             |

Aurreikusita dago kontratua 2021eko otsailaren 1ean hastea  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de febrero de 2021

## VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *"Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta..."*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat,



ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedarekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

## **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espeditentearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

## **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez ta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.652.801,14 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino txikiagoa da; beraz, eskumena Alkate-Lehendakariaren izango litzateke, baina kontratuaren iraupen osoa,



luzapenak barne, bost urtekoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz.

Aipatu behar da kontratazio-organismoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Tolosako udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2020ko abenduaren 11n egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

**Abstentzioak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazquin.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

**Bigarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

**Epea:** Bi urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, urtez urte, beste hiru urteko luzapena aurreikusten da.

**Balio zenbatetsia:** SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz kontratuaren balio zenbatetsia **2.652.801,14** eurokoa dela.



|                                                      |                       |
|------------------------------------------------------|-----------------------|
| Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)                  | 875.607,59 €          |
| Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa %20 (BEZik gabe) | 410.000,00 €          |
| Luzapenak (BEZik gabe)                               | 1.367.193,55 €        |
| <b>BALIO ZENBATETSA, GUZTIRA</b>                     | <b>2.652.801,14 €</b> |

| PRESUPUESTO<br>BASE LICITACIÓN |               |                |                |                |                | modificaciones<br>previstas | VALOR<br>ESTIMADO |
|--------------------------------|---------------|----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------------------|-------------------|
| 1 años sin IVA                 | 1 año con IVA | 2 años sin IVA | 2 años con IVA | 5 años sin IVA | 5 años con IVA |                             |                   |
| 434.281,37 €                   | 525.480,46 €  | 875.607,59     | 1.059.485,19   | 2.242.801,14   | 2.713.789,38   | 410.000,00                  | 2.652.801,14      |

Pleguarekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomiko guztiak lortu dira. Azterketa ekonomiko hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.059.485,19 euro**, horietatik, 875.607,59 euro printzipalari dagozkio, eta 183.877,59 euro, BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, eragindako programen udal-aurrekontuaren **227.01 "garbiketa" azpikontzeptuko** udal aurrekontu-partiden kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Udal-eraikin guztietan eta hiri-altzarietan egindako lanak argi eta garbi bereizteko, lizitazio honen dokumentaziotik bereizi ezin den azterlan ekonomikoa egindako banakapenean xedatutakoaren arabera, eta dagozkion gastuak egotzi ahal izateko, esleipendunak hilero faktura bat aurkeztuko du 1etik 25era zenbakitutako eraikin/altzari bakoitzeko. Bertan, mantentze-lanei, kristalei eta jaiegunei (halakorik balego) dagokien gastua banakatuko da.

|                | meses     | valor estimado      | cuota a pagar<br>(IVA incluido) |
|----------------|-----------|---------------------|---------------------------------|
| 2021           | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2022           | 12        | 448.560,23          | 542.757,88                      |
| 2023           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
|                | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2024           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
|                | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2025           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
|                | 11        | 411.180,21          | 497.528,05                      |
| 2026           | 1         | 37.380,02           | 45.229,82                       |
| modificaciones |           | 410.000,00          |                                 |
| <b>TOTAL</b>   | <b>60</b> | <b>2.652.801,14</b> | <b>2.713.789,38</b>             |

*Aurreikusita dago kontratua 2021eko otsailaren 1ean hasia  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de febrero de 2021*

Kasu honetan, SPKLaren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espediente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratuari dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, **kontratua benetan exekutatze**ko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

**Hirugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.



**Laugarrena.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzailleek beren proposamenak 40 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena:** Behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu**

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Obrak eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen kontratazio espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.

### **3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2021. URTEKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDARI.**

**Antolakuntza Batzordearen 2020ko abenduaren 11ko irizpena.**

## **AURREKARIAK**

Administrazio Publikoek, horien artean udalek, beren zerbitzura dituzten giza baliabideak egituratzeko antolaketa-tresna bat behar dute, eman behar dituzten zerbitzu beharren arabera eta lanpostu bakoitzak eduki behar dituen gutxieneko betebeharrak batzuen baitan.



Tresna hori Lanpostuen Zerrenda da, eta, bertan, Tolosako Udalak duen lanpostuen zerrenda eta lanpostu bakoitzak dituen eduki eta ezaugarriak azaltzen dira.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**Lehena.-** 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, *“Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabiltza egituratuko dute beren antolamendua”*. Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeke ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena.
- Sailkapen profesionalean zein Taldetakoa den.
- Lanpostuaren eskala.
- Lanpostua betetzeko modua.
- Ordainsari osagarriak.

Lehen aipatutako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeke irizpideak.

**Bigarrenik.-** 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteke eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

**Hirugarrenik.-** 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, Lege horren 90.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.



Aurrekoarekin bat etorrita, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legearen 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBren 126. artikulua, 1., 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

### ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 37.1 artikulua c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako tresnen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren onarpen hau ordezkari sindikalekin negoziatu behar da.

### ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, TATBren 127. artikulua baitan, plantilla organikoaren prozedura berari jarraituaz, behin Udalbatzak onartu ondoren, akordio hori jendaurrean jarri beharko da 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratuta. Alegaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2020ko abenduaren 11n egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazquin eta Jose Mari Villanueva Tellería..



Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehenik.-** Onartzea 2021. urteko Udaleko lanpostu zerrenda. (ikus akta honen eranskina)

**Bigarrenik.-** Akordio hau 15 lanegunetan jendaurrean edukitzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratuta.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mencia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du 2021. urteko Udaleko lanpostu zerrenda.

#### **4. ONARTZEA 2020-2022 TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.**

##### **Antolakuntza Batzordearen 2020ko abenduaren 11ko irizpena.**

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan hainbat lerro txertatzeko proposamena jaso da hainbat sailetatik.

Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren sustapenerako teknikariak proposamen hau egin du, 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan lerro berri hauek sartzeko:



Dirulaguntza lerroa: 6.8. Negozio berriak sustatzeko laguntzak

|                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-----------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eskumen arloa                     | Merkataritza, Azoka eta Turismoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Sektore hartzaileak               | Tolosan kokatuko diren enpresa-ekimen berriak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Helburuak                         | Hutsik dauden lokaletan kokatuko diren enpresa-ekimen berriei dirulaguntzak. Honako jardun hauek lagunduko dira diruz:<br>- Alokairurako dirulaguntzak.<br>- Lokala birgaitu edo egokitzeko dirulaguntzak.                                                                                                                                                        |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Negozio berriak sustatzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Ikus taulan.<br>Finantziaketa funts propioekin egiten da.                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Ekintza plana                     | Udalbatzak ordenantzari hasierako onarpena eman ostean, aldizkari ofizialean eta iragarki taulan argitaratuko da. Jendaurrean jarri eta alegaziorik egon ezean, behin betiko onespina emango zaio.<br>Horren ostean, zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Eskerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Aurkeztutako negozio-eredu kopurua.<br>- Diruz lagundutako negozio-eredu kopurua.<br>- Banatutako dirulaguntza kopurua.                                                                                                                                                                                                                                         |

| PARTIDA            | ONURADUNA       | AZALPENA                                                                                              | KOPURUA  | MOTA                                   | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|----------------------------------------|-------------------------------|
| 1100.471.01.430.00 | Negozio berriak | Tokiko ekonomia sustatzea eta negozio berriei laguntzea:<br>- alokairurako dirulaguntza               | 50.000 € | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 100.000 €                     |
| 1100.771.01.430.00 | Negozio berriak | Tokiko ekonomia sustatzea eta negozio berriei laguntzea: hutsik dagoen lokala egokitzeko dirulaguntza | 20.000 € | Lehiarik gabeko norgehiagoka prozedura | 40.000 €                      |



Dirulaguntza lerroa: 6.9. Suspertu Tolosa bonu-kanpaina

|                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eskumen arloa                     | Merkataritza, Azoka eta Turismoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Sektore hartzaileak               | Tolosa&Co merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu elkarteak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Helburuak                         | Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| Lortu nahi diren ondorioak        | COVID-19aren eraginei aurre egitea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Helburuak                  | Alokairua sustatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Lortu nahi diren ondorioak | Pertsona ahulenen talde jakin batzuek alokairuko etxebizitzak eskura ditzaten sustatzea helburu duen programa bat bultzatzea, pertsonen ordainketa gaitasunera egokitutako errentekin.<br>Izaera irekia, plurala eta askotarikoa duen programa bat bultzatzea eta sustatzea, garapen pertsonala eta autonomia sustatzeko.                                                                                                                                              |
| Egikaritze epea            | Zehaztu gabe                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| Kostuak                    | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Ikus taulan.<br>Finantziakzioa funts propioekin egiten da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| Ekintza Plana              | Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publikoa egingo da. Ebazpena jakinarazi egingo da, eta gastua egin ondoren, dagokion zuriketa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Jarraipena eta ebaluazioa  | Laguntza ordaindu aurretik, onuradunak alokairu aldian emandako laguntza justifikatu beharko du, egindako gastuaren egiaztagiriak aurkeztuta.<br>Adierazleak: parte hartzaileen kopurua; kolektibo bakoitzean laguntza horiek jaso dituzten pertsonen kopurua (gizonak/ emakumeak); etxebizitza motak eta emandako laguntzen zenbatekoa.                                                                                                                               |

| PARTIDA           | ONURADUNA                                                                                                                                                         | AZALPENA               | KOPURUA  | MOTA         | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|-------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|----------|--------------|-------------------------------|
| 0600.480.01.15240 | 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, mugikortasun murriztua edo ezintasun absolutua duten pertsonak, bananduak edo dibortziatuak, 65 urtetik gorakoak eta alargunak. | Alokairurako laguntzak | 40.000 € | Norgehiagoka | 80.000 €                      |



Dirulaguntza lerroa: 5.1.- Kluben egitura eta jarduerak

|                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-----------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eskumen arloa                     | Kirola eta jarduera fisikoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Sektore hartzaileak               | Irabazi asmorik gabeko kirol-taldeak eta klubak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Helburuak                         | Tolosako kirol-taldeek eta klubek dirulaguntzak zuzenean eskatzeko duten aukera arautzea eta laguntza horien kontzesioa, eta haien egiturak indartu eta garatzearekin batera, kirola eta jarduera fisikoa sustatzea herritarren.                                                                                                                                                                                                  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Bizi ohitura osasungarriak eta herritar aktiboak, kohesio soziala kirolaren bidez.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Ikus taulan.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Ekintza Plana                     | Batzuk norgehiagoka bidez emango dira eta besteak, berriz, zuzenean. Norghegiagoka ematen diren kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publikoa egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntza gisa. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea. Zuzenean ematen diren kasuan, hitzarmen baten bidez gauzatuko da. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirolari kopuruak.</li> <li>- Teknikarien titulazioak.</li> <li>- Lehiaketa maila.</li> <li>- Zuzendaritzen osaketa.</li> <li>- Eskola kirolarekin hitzarmenak.</li> <li>- Beste laguntza iturriak.</li> </ul> Genero ikuspegia denetan txertatuta.                                                                                                                                      |

| PARTIDA            | ONURADUNA                   | AZALPENA                            | KOPURUA  | MOTA          | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------------------------|-------------------------------------|----------|---------------|-------------------------------|
| 1000.481.01.341.00 | KIROL TALDEAK               | 1. Eranskina. Kirol taldeen egitura | 16.000 € | Norghegiagoka | 126.800 €                     |
| 1000.481.01.341.00 | ORIAKO TXIRRINDULARI TALDEA | Kirol taldeen egitura               | 12.000 € | Izenduna      | 24.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | IKT                         | Kirol taldeen egitura               | 15.000 € | Izenduna      | 30.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | BEOTIBAR C.D. ZESTA PUNTA   | Kirol taldeen egitura               | 6.000 €  | Izenduna      | 12.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | TOLOSAKO ADISKIDEOK K.E.    | Kirol taldeen egitura               | 20.000 € | Izenduna      | 40.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | C.D.IGARONDO URPEKOAK       | Kirol taldeen egitura               | 6.000 €  | Izenduna      | 12.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | OARGI ELKARTEA              | Kirol taldeen egitura               | 12.000 € | Izenduna      | 24.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | IRRISTAKA TALDEA            | Kirol taldeen egitura               | 6.000 €  | Izenduna      | 12.000 €                      |
| 1000.481.01.341.00 | TOLOBOLEI                   | Kirol taldeen egitura               | 2.000 €  | Izenduna      | 4.000 €                       |
| 1000.481.01.341.00 | OREKA SLACKLINE             | Kirol taldeen egitura               | 1.800 €  | Izenduna      | 3.600 €                       |



Dirulaguntza lerroa: 1.9.- “EKIN-ENEA”

|                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-----------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak                                                                                                                                                                                                                                              |
| Sektore hartzaileak               | Peñascal Kooperatiba                                                                                                                                                                                                                                            |
| Helburuak                         | COVID-19ak eragindako larrialdi egoeran azaleratutako edo areagotutako bazterkeria-egoera larriei aurre egiteko egitasmo berria bideragarri egiteko diruz laguntzea.                                                                                            |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Bazterkeria egoera larrian eta etxerik gabe dauden pertsonen behar oinarritzkoenak asetzeko (elikagaia, garbitasuna eta alojamendua) eta gizarteratzeko prozesua abiarazteko aukera eskainiko duen esku-hartzeko baliabide berria sustatzea.                    |
| Egikaritze epea                   | 2020ko ekaina-abendua                                                                                                                                                                                                                                           |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | 48.800 € 2020ko aurrekontuaren 0500.481.01.231.00 partidatik. Funts propioekin.                                                                                                                                                                                 |
| Ekintza Plana                     | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorak xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten edo ez.                                                                                                          |

| PARTIDA            | ONURADUNA            | AZALPENAK                                                                                        | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|----------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 0500.481.01.231.00 | PEÑASCAL KOOPERATIBA | COVID-19 LARRIALDIAREN ONDOREN BAZTERKERIA EGOERA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN LAGUNTZEKO BALIABIDEA | 48.800€ | IZENDUNA | 48.800€                       |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.



Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

## 5. ONARTZEA 2020KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEA. 4-2020.

### Antolakuntza Batzordearen 2020ko abenduaren 11ko irizpena.

2020ko dirulaguntzen eranskinean, ondorengo aldaketa hau sartzea proposatu da:

| Partida            | Onuraduna<br>IZENA   | Helburua            | Behin betiko<br>aurrekontua<br>2020 | Tipoa    |
|--------------------|----------------------|---------------------|-------------------------------------|----------|
| 0500.481.01.231.00 | PEÑASCAL KOOPERATIBA | Ekin-enea proiektua | 48.800,00                           | Izenduna |

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak

### DIKTAMINATU DU

**Lehenen.-** Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinaren aldaketari, eta aldatutako dirulaguntza hori honela uztea:

| Partida            | Onuraduna<br>IZENA   | Helburua            | Behin-betiko<br>Aurrekontua<br>2020 | Tipoa    |
|--------------------|----------------------|---------------------|-------------------------------------|----------|
| 0500.481.01.231.00 | PEÑASCAL KOOPERATIBA | Ekin-enea proiektua | 48.800,00                           | Izenduna |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2020ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dute, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez badago epe barruan, aldaketa hori behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de



Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du 2020ko dirulaguntzen eranskina aldatzea, 4-2020.

## 6. ONARTZEA AURREKONTU-KREDITU BATZUK BERRIRO ERABILGARRI AITORTZEA.

### Antolakuntza Batzordearen 2020ko abenduaren 11ko irizpena.

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, onartu zuen udal honen 2020ko aurrekontuko hainbat kreditu ez erabilgarri aitortzea, aurtengo sarrera aurreikuspenetan COVID-19 gaitzak izango duen eraginaren estimazioa egin ondoren.

Ez erabilgarri aitortutako kredituak, guztira 935.506,00 euro izan ziren, ondorengo banaketa honekin:

| Partida                   | Deskribapena                               | Behin betiko aurrekontua | Ez erabilgarritasuna RCN | Behin betiko aurrekontua erabilgarria |
|---------------------------|--------------------------------------------|--------------------------|--------------------------|---------------------------------------|
| 1 0100.226.02.912.00 2020 | PROTOKOLO GASTUAK.GOBERNU ORGANOAK.        | 15.000,00                | 5.000,00                 | 10.000,00                             |
| 1 0100.226.99.912.00 2020 | BESTE ZENBAIT GASTU.GOBERNU ORGANOAK       | 18.000,00                | 8.000,00                 | 10.000,00                             |
| 1 0300.227.11.920.20 2020 | INFORMATIKA ZERBITZUAK. INFORMATIKA        | 354.430,00               | 89.250,00                | 265.180,00                            |
| 1 0500.226.99.231.00 2020 | HAIBAT GASTU. GIZARTE ZERBITZUAK           | 20.000,00                | 4.500,00                 | 15.500,00                             |
| 1 0500.227.04.231.00 2020 | KONTRATU SOZIO KULTURALAK. GIZARTE ZERB.   | 675.980,00               | 164.217,00               | 511.763,00                            |
| 1 0500.471.01.231.92 2020 | ENPRESEI.UZTURRE GERONTOLOGIKOA            | 157.000,00               | 30.000,00                | 127.000,00                            |
| 1 0500.481.01.231.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERB. | 232.876,00               | 59.000,00                | 173.876,00                            |
| 1 0800.221.99.333.10 2020 | BESTELAKO HORNIDURAK. LEIDOR               | 45.000,00                | 10.250,00                | 34.750,00                             |
| 1 0800.226.03.333.10 2020 | PUBLIZITATEA. LEIDOR.                      | 4.850,00                 | 2.050,00                 | 2.800,00                              |
| 1 0800.226.06.326.20 2020 | JARD.SOZIO KULTURALAK. MUSIKA ESKOLA       | 9.000,00                 | 1.500,00                 | 7.500,00                              |
| 1 0800.226.06.332.10 2020 | JARD.SOZIO KULTURALAK. LIBURUTEGIA         | 6.000,00                 | 1.500,00                 | 4.500,00                              |
| 1 0800.226.06.334.10 2020 | JARD. SOZIO KULTURALAK. KULTURA            | 188.330,00               | 43.500,00                | 144.830,00                            |
| 1 0800.226.06.337.20 2020 | JARDUERA SOZIO KULTURALAK. GAZTERIA        | 64.728,00                | 28.507,00                | 36.221,00                             |
| 1 0800.226.06.338.00 2020 | JARD.SOZIO KULTURALAK. JAIK                | 416.027,00               | 114.385,00               | 301.642,00                            |
| 1 0800.227.04.333.10 2020 | KONTRATU SOZIOKULTURALAK. LEIDOR           | 180.000,00               | 81.000,00                | 99.000,00                             |
| 1 0800.227.04.334.10 2020 | KONTRATU SOZIOKULTURALAK. KULTURA          | 32.000,00                | 32.000,00                | 0,00                                  |
| 1 0800.227.04.334.11 2020 | KONTRATU SOZIOKULTURALAK. KULTUR TAILERRAK | 94.000,00                | 30.000,00                | 64.000,00                             |
| 1 0800.227.04.334.12 2020 | KONTRATUAK. MUSIKA BANDA                   | 152.000,00               | 50.400,00                | 101.600,00                            |
| 1 0800.481.01.334.10 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. KULTURA   | 178.500,00               | 14.000,00                | 164.500,00                            |
| 1 0800.481.01.337.20 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. GAZTERIA  | 24.700,00                | 2.700,00                 | 22.000,00                             |
| 1 0800.481.01.338.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. JAIK      | 98.134,00                | 2.804,00                 | 95.330,00                             |
| 1 0900.226.99.320.00 2020 | BESTE HAIBAT GASTU. HEZKUNTZA ZERBITZUA    | 10.000,00                | 7.000,00                 | 3.000,00                              |
| 1 0900.227.07.335.10 2020 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. EUSKARA       | 11.000,00                | 6.000,00                 | 5.000,00                              |
| 1 0900.481.01.335.10 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. EUSKARA       | 358.709,00               | 7.000,00                 | 351.709,00                            |
| 1 1000.226.07.341.00 2020 | KIROL JARDUERAK. KIROLAK                   | 32.750,00                | 10.000,00                | 22.750,00                             |
| 1 1000.481.01.341.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK .KIROLAK       | 309.800,00               | 40.250,00                | 269.550,00                            |
| 1 1200.226.99.920.40 2020 | BESTE GASTUAK. KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZA | 72.500,00                | 69.500,00                | 3.000,00                              |
| 1 1400.226.06.231.60 2020 | JARD. SOZIO-KULTURAK. BERDINTASUNA         | 67.645,00                | 5.943,00                 | 61.702,00                             |
| 1 1400.227.04.231.60 2020 | KONTRATUAK. BERDINTASUNA                   | 63.600,00                | 15.250,00                | 48.350,00                             |
|                           | GUZTIRA                                    |                          | 935.506,00               |                                       |



Kreditu hauetatik, honako hauek berriro erabilgarri aitortu ziren 2020ko irailaren 24ko Osoko Bilkuran, adierazten diren zenbatekoetan:

| Partida                   | Deskribapena                             | Behin betiko aurrekontua | Ez erabilgarria | Berriro erabilgarria | Behin betiko aurrekontua erabilgarria |
|---------------------------|------------------------------------------|--------------------------|-----------------|----------------------|---------------------------------------|
| 1 0800.226.06.334.10 2020 | JARD. SOZIO KULTURALAK. KULTURA          | 188.330,00               | 43.500,00       | 5.000,00             | 149.830,00                            |
| 1 0800.481.01.334.10 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. KULTURA | 178.500,00               | 14.000,00       | 4.000,00             | 168.500,00                            |

Orain, ABEGI elkarteak uztailaren 1etik aurrera COVID-19ak sortu duen egoera berrira egokitzeko egindako eskaerari erantzunez, Gizarte Zerbitzuetako Sailaren arduradunak proposamen bat aurkeztu du honako kreditu hau berriro erabilgarri aitortzeko, adierazten den zenbatekoan:

| Partida                   | Deskribapena                               | Behin betiko aurrekontua | Ez erabilgarria | Berriro erabilgarria | Behin betiko aurrekontua erabilgarria |
|---------------------------|--------------------------------------------|--------------------------|-----------------|----------------------|---------------------------------------|
| 1 0500.481.01.231.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERB. | 281.676,00               | 59.000,00       | 12.000,00            | 234.676,00                            |

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 40. artikuluan, aurrekontu-kredituen egoera arautzen du:

*"40. artikulua. Aurrekontuko kredituen egoera eta gastuen aurrekontua exekutatzeko faseak.*

*1. Aurrekontu-kredituak honako egoera hauetako batean egon daitezke:*

- a) Kreditu erabilgarriak.*
- b) Erabili gabeko kreditu atxikiak.*
- c) Eskuragarri ez dauden kredituak.*
- d) Kreditu erabiliak.*

*Printzipioz, gastuen aurrekontuan edo haren aldaketetan onartuta dauden kreditu guztiak erabilgarritzat hartzen dira. Egoera horretatik aurrera, aurrekontu kredituek har ditzaketen beste bi egoeretako batean gera daitezke, hau da, edo atxikiak edo ez-erabilgarriak, edo, bestela, gastu bat baimendu daiteke, eta horrela, gastua exekutatzeko prozedura abiatzen da.*



*Kreditu atxikipena egiten denean, erabilgarri dagoen kreditu bat atxikita eta erabiltzeko moduan geratzen da, ziurtatuta utzi baita, badagoela behar besteko kreditua kopuru jakineko gastu edo transferentzia bat baimentzeko. Zenbateko bereko kopuru bat erreserbatzen da gastu edo transferentzia horretarako..*

*Kreditu baten ez-erabilgarritasuna gertatzen da aurrekontuko partida batek duen kredituaren saldo osoa edo haren zati bat ibilgetzen denean, hau da, hura ezin dela erabili deklaritzen denean.*

*Ez-erabilgarritasunaren deklarazioak ez du deuseztatuko kreditua, baina ez-erabilgarritzat hartutako saldoaren kargura ezin izango da baimendu inolako gastu edo transferentziarik, eta haren zenbatekoa ezin izango da txertatu hurrengo ekitaldiko aurrekontuan.*

*Kredituen ez-erabilgarritasuna deklaratzeko eta haiek berriro erabilgarritzat jotzea entitateko Osoko Bilkurari dagokio."*

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori horrela, Batzordeak

## DIKTAMINATU DU

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko 0500.481.01.231.00 partidan 12.000,00 euroko kreditua berriro erabilgarri aitortzea:

| Partida                   | Deskribapena                               | Behin betiko aurrekontua | Ez erabilgarria | Berriro erabilgarria | Behin betiko aurrekontu erabilgarria |
|---------------------------|--------------------------------------------|--------------------------|-----------------|----------------------|--------------------------------------|
| 1 0500.481.01.231.00 2020 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERB. | 281.676,00               | 59.000,00       | 12.000,00            | 234.676,00                           |

Kapituluko laburpena hau da:

| Kapituluak                           | Izena                   | Berriro erabilgarriak |
|--------------------------------------|-------------------------|-----------------------|
| 4                                    | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 12.000,00             |
| <b>BERRIRO ERABILGARRIAK GUZTIRA</b> |                         | <b>12.000,00</b>      |



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Udal honen aurrekontuko kreditu batzuk berriro erabilgarri aitortzea.

## **7. 2021EKO AURREKONTU OROKORRAREN HASIERAKO ONARPENA.**

### **Antolakuntza Batzordearen 2020ko abenduaren 11ko irizpena.**

#### **Aurrekariak**

2021eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta barne dituen aurrekontu hauek aurkeztu dira:

|                                     |               |
|-------------------------------------|---------------|
| Udala                               | 27.037.040,00 |
| Tolargi S.L.                        | 1.397.304,00  |
| Tolosa Gasa SA (% 60ko partaidetza) | 333.902,00    |

Aipatutako aurrekontuetako bakoitzean sartu dira ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako sarreraren egoera eta ordainketazko nahiz konpromisozko beharrei aurre egiteko kredituen gastuen egoera.

Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorra ez du hasierako defizitik.

Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaitan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.

Aurrekontu Orokorren onarpena Udalbatzarraren esku dago eta gehiengo soilaren aldeko botoa behar du.



Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udaletxeko iragarki taulan jarriko da jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin betiko onartu.

Erreklamaziorik ez badago, hartutako behin-behineko erabakia behin betikoa izango da.

### Araubide aplikagarria

1. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

Proiektuaren laburpena kapituluka hau da:

### Tolosako Udalaren aurrekontua.

| SARRERAK |                              |               | INGRESOS |                                   |               |
|----------|------------------------------|---------------|----------|-----------------------------------|---------------|
| Kap.     | Izena                        | Euro          | Cap.     | Denominación                      | Euros         |
| 1        | Zuzeneko zergak              | 5.906.000,00  | 1        | Impuestos directos                | 5.906.000,00  |
| 2        | Zeharkako zergak             | 1.000.000,00  | 2        | Impuestos indirectos              | 1.000.000,00  |
| 3        | Tasak eta bestelako sarrerak | 4.236.850,00  | 3        | Tasas y otros ingresos            | 4.236.850,00  |
| 4        | Transferentzia korranteak    | 14.530.890,00 | 4        | Transferencias corrientes         | 14.530.890,00 |
| 5        | Ondare sarrerak              | 921.300,00    | 5        | Ingresos patrimoniales            | 921.300,00    |
| 6        | Inbertsioen besterenganatzea | 442.000,00    | 6        | Enajenación de inversiones reales | 442.000,00    |
| 7        | Kapital transferentziak      | 0,00          | 7        | Transferencias de capital         | 0,00          |
| 8        | Finantza aktiboak            | 0,00          | 8        | Activos financieros               | 0,00          |
| 9        | Finantza pasiboak            | 0,00          | 9        | Pasivos financieros               | 0,00          |
| GUZTIRA  |                              | 27.037.040,00 | TOTAL    |                                   | 27.037.040,00 |

| GASTUAK |                               |               | GASTOS |                               |               |
|---------|-------------------------------|---------------|--------|-------------------------------|---------------|
| Kap.    | Izena                         | Euro          | Cap.   | Denominación                  | Euros         |
| 1       | Pertsonal Gastuak             | 10.508.392,00 | 1      | Gastos de personal            | 10.508.392,00 |
| 2       | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 10.521.072,00 | 2      | Bienes corrientes y servicios | 10.521.072,00 |
| 3       | Finantza Gastuak              | 1.000,00      | 3      | Gastos financieros            | 1.000,00      |
| 4       | Transferentzia korranteak     | 4.028.713,00  | 4      | Transferencias corrientes     | 4.028.713,00  |
| 6       | Inbertsio errealak            | 722.500,00    | 6      | Inversiones reales            | 722.500,00    |
| 7       | Kapital transferentziak       | 190.000,00    | 7      | Transferencias de capital     | 190.000,00    |
| 8       | Finantza aktiboak             | 0,00          | 8      | Activos financieros           | 0,00          |
| 9       | Finantza pasiboak             | 1.065.363,00  | 9      | Pasivos financieros           | 1.065.363,00  |
| GUZTIRA |                               | 27.037.040,00 | TOTAL  |                               | 27.037.040,00 |



## Tolargi SLren aurrekontua

| SARRERAK |                              |              | INGRESOS |                                   |              |
|----------|------------------------------|--------------|----------|-----------------------------------|--------------|
| Kap.     | Izena                        | Euro         | Cap.     | Denominación                      | Euros        |
| 1        | Zuzeneko zergak              | 0,00         | 1        | Impuestos directos                | 0,00         |
| 2        | Zeharkako zergak             | 0,00         | 2        | Impuestos indirectos              | 0,00         |
| 3        | Tasak eta bestelako sarrerak | 1.400.204,00 | 3        | Tasas y otros ingresos            | 1.400.204,00 |
| 4        | Transferentzia korranteak    | 0,00         | 4        | Transferencias corrientes         | 0,00         |
| 5        | Ondare sarrerak              | 0,00         | 5        | Ingresos patrimoniales            | 0,00         |
| 6        | Inbertsioen besterenganatzea | 0,00         | 6        | Enajenación de inversiones reales | 0,00         |
| 7        | Kapital transferentziak      | 0,00         | 7        | Transferencias de capital         | 0,00         |
| 8        | Finantza aktiboak            | -2.900,00    | 8        | Activos financieros               | -2.900,00    |
| 9        | Finantza pasiboak            | 0,00         | 9        | Pasivos financieros               | 0,00         |
|          | GUZTIRA                      | 1.397.304,00 |          | TOTAL                             | 1.397.304,00 |

| GASTUAK |                               |              | GASTOS |                               |              |
|---------|-------------------------------|--------------|--------|-------------------------------|--------------|
| Kap.    | Izena                         | Euro         | Cap.   | Denominación                  | Euros        |
| 1       | Pertsonal gastuak             | 494.700,00   | 1      | Gastos de personal            | 494.700,00   |
| 2       | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 752.200,00   | 2      | Bienes corrientes y servicios | 752.200,00   |
| 3       | Finantza gastuak              | 404,00       | 3      | Gastos financieros            | 404,00       |
| 4       | Transferentzia korranteak     | 0,00         | 4      | Transferencias corrientes     | 0,00         |
| 6       | Inbertsio errealak            | 135.000,00   | 6      | Inversiones reales            | 135.000,00   |
| 7       | Kapital transferentziak       | 0,00         | 7      | Transferencias de capital     | 0,00         |
| 8       | Finantza aktiboak             | 0,00         | 8      | Activos financieros           | 0,00         |
| 9       | Finantza pasiboak             | 15.000,00    | 9      | Pasivos financieros           | 15.000,00    |
|         | GUZTIRA                       | 1.397.304,00 |        | TOTAL                         | 1.397.304,00 |



### Tolosa Gasa SAREN aurrekontua (% 60)

| SARRERAK |                              |             | %60a | INGRESOS |                                   |             | %60a |
|----------|------------------------------|-------------|------|----------|-----------------------------------|-------------|------|
| Kap.     | Izena                        | Euro        |      | Cap.     | Denominación                      | Euros       |      |
| 1        | Zuzeneko zergak              | 0,00        |      | 1        | Impuestos directos                | 0,00        |      |
| 2        | Zeharkako zergak             | 0,00        |      | 2        | Impuestos indirectos              | 0,00        |      |
| 3        | Tasak eta bestelako sarrerak | 515.634,00  |      | 3        | Tasas y otros ingresos            | 515.634,00  |      |
| 4        | Transferentzia korranteak    | 0,00        |      | 4        | Transferencias corrientes         | 0,00        |      |
| 5        | Ondare sarrerak              | 1.440,00    |      | 5        | Ingresos patrimoniales            | 1.440,00    |      |
| 6        | Inbertsioen besterenganatzea | 0,00        |      | 6        | Enajenación de inversiones reales | 0,00        |      |
| 7        | Kapital transferentziak      | 0,00        |      | 7        | Transferencias de capital         | 0,00        |      |
| 8        | Finantza aktiboak            | -183.172,00 |      | 8        | Activos financieros               | -183.172,00 |      |
| 9        | Finantza pasiboak            | 0,00        |      | 9        | Pasivos financieros               | 0,00        |      |
| GUZTIRA  |                              | 333.902,00  |      | TOTAL    |                                   | 333.902,00  |      |

| GASTUAK |                               |            | %60a | GASTOS |                               |            | 60% |
|---------|-------------------------------|------------|------|--------|-------------------------------|------------|-----|
| Kap.    | Izena                         | Euro       |      | Cap.   | Denominación                  | Euros      |     |
| 1       | Pertsonal gastuak             | 42.623,00  |      | 1      | Gastos de personal            | 42.623,00  |     |
| 2       | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 291.279,00 |      | 2      | Bienes corrientes y servicios | 291.279,00 |     |
| 3       | Finantza gastuak              | 0,00       |      | 3      | Gastos financieros            | 0,00       |     |
| 4       | Transferentzia korranteak     | 0,00       |      | 4      | Transferencias corrientes     | 0,00       |     |
| 6       | Inbertsio errealak            | 0,00       |      | 6      | Inversiones reales            | 0,00       |     |
| 7       | Kapital transferentziak       | 0,00       |      | 7      | Transferencias de capital     | 0,00       |     |
| 8       | Finantza aktiboak             | 0,00       |      | 8      | Activos financieros           | 0,00       |     |
| 9       | Finantza pasiboak             | 0,00       |      | 9      | Pasivos financieros           | 0,00       |     |
| GUZTIRA |                               | 333.902,00 |      | TOTAL  |                               | 333.902,00 |     |



## Aurrekontu bateratua

| SARRERAK |                              |               | INGRESOS |                                   |               |
|----------|------------------------------|---------------|----------|-----------------------------------|---------------|
| Kap.     | Izena                        | Euro          | Cap.     | Denominación                      | Euros         |
| 1        | Zuzeneko zergak              | 5.901.800,00  | 1        | Impuestos directos                | 5.901.800,00  |
| 2        | Zeharkako zergak             | 1.000.000,00  | 2        | Impuestos indirectos              | 1.000.000,00  |
| 3        | Tasak eta bestelako sarrerak | 5.580.088,00  | 3        | Tasas y otros ingresos            | 5.580.088,00  |
| 4        | Transferentzia korronteak    | 14.530.890,00 | 4        | Transferencias corrientes         | 14.530.890,00 |
| 5        | Ondare sarrerak              | 922.740,00    | 5        | Ingresos patrimoniales            | 922.740,00    |
| 6        | Inbertsioen besterenganatzea | 442.000,00    | 6        | Enajenación de inversiones reales | 442.000,00    |
| 7        | Kapital transferentziak      | 0,00          | 7        | Transferencias de capital         | 0,00          |
| 8        | Finantza aktiboak            | -186.072,00   | 8        | Activos financieros               | -186.072,00   |
| 9        | Finantza pasiboak            | 0,00          | 9        | Pasivos financieros               | 0,00          |
| GUZTIRA  |                              | 28.191.446,00 | TOTAL    |                                   | 28.191.446,00 |

| GASTUAK |                               |               | GASTOS |                               |               |
|---------|-------------------------------|---------------|--------|-------------------------------|---------------|
| Kap.    | Izena                         | Euro          | Cap.   | Denominación                  | Euros         |
| 1       | Pertsonal gastuak             | 11.045.715,00 | 1      | Gastos de personal            | 11.045.715,00 |
| 2       | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 10.987.751,00 | 2      | Bienes corrientes y servicios | 10.987.751,00 |
| 3       | Finantza gastuak              | 1.404,00      | 3      | Gastos financieros            | 1.404,00      |
| 4       | Transferentzia korronteak     | 4.028.713,00  | 4      | Transferencias corrientes     | 4.028.713,00  |
| 6       | Inbertsio errealak            | 857.500,00    | 6      | Inversiones reales            | 857.500,00    |
| 7       | Kapital transferentziak       | 190.000,00    | 7      | Transferencias de capital     | 190.000,00    |
| 8       | Finantza aktiboak             | 0,00          | 8      | Activos financieros           | 0,00          |
| 9       | Finantza pasiboak             | 1.080.363,00  | 9      | Pasivos financieros           | 1.080.363,00  |
| GUZTIRA |                               | 28.191.446,00 | TOTAL  |                               | 28.191.446,00 |

Proposamena bozkatu dute eta hau izan da emaitza:

Xabier Balerdi (EAJ): Aldeko botoa  
 Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa  
 Nerea Letamendia (EAJ): Aldeko botoa  
 Garbiñe Marzol (EH-Bildu): Abstentzioa  
 Ander Figuerido (EH-Bildu): Abstentzioa  
 Kristina Pelaez (EH-Bildu): Abstentzioa  
 Jose Mari Villanueva (PSE-EE): Aldeko botoa

Hori dela eta, Batzordeak



## DIKTAMINATU DU

**Lehena:** hasierako onarpena ematea 2021eko Aurrekontu Orokorrari.

**Bigarrena:** jendaurrean jartzea hamabost egunetan, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**Hirugarrena:** erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, Tolosako Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla .

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, hasierako onarpena eman dio 2021eko Aurrekontu Orokorrari.

## **BERRI EMATEA**

### **8. KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMAN:**

#### **15/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEARI DAGOKIONA, KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEKOA.**

Begoña Tolosa Mendi, Ogasuneko zinegotzi delegatuak azalpenak eman ditu. 2020/1945 Alkatetzak dekretuak honela dio:

### **ALKATEAREN DEKRETUA**

2020/1945

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana



Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2020-KALD-000015-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Eta Foru Arau horrek 29. artikuluen 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

#### Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

| Kapitulua      | Izena                                   | Egungo kredituak    | Murrizketa        | Amaierako kreditua  |
|----------------|-----------------------------------------|---------------------|-------------------|---------------------|
| 1              | PERSONAL GASTUAK                        | 1.999.027,00        | 159.300,00        | 1.839.727,00        |
| 2              | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN |                     |                   |                     |
| 3              | FINANTZA GASTUAK                        |                     |                   |                     |
| 4              | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK                 |                     |                   |                     |
